

Irati, mitologiatik komikietara

Joxean Muñozek eta Juan Luis Landak 'Irati' bilduma jarri dute abian, 'Saiak' albumarekin

ANE AZURMENDI
Donostia

Joxean Muñoz Donostiako Tabako Fabrikako zuzendariak egin du *Irati* bildumako *Saiak* komikiaren gidioa, eta Juan Luis Landak marrazkiak. *El ciclo de Irati*-ren jarraipena da komiki hau, eta *Irati* bilduma berria jarri du abian. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak *Xabiroi* euskal komiki aldizkariari proposatu zion ideia, eta haiek Landa eta Muñoz hautatu zituzten lana egiteko.

Irati, albumeko protagonista, basoan bizi den lamina bat da. Gizaki bat eta pertsonaia mitologiko bat uztartuta sortutako gizakia da. Iratik Eneko ezagutu zuen. Eneko, egunen batean Nafarroako errege izateko prestatzen ari den gaztea da. Basoan elkar ezagutu eta maitemindu egin ziren. Hala, Iratik, gizaki bati laguntzen diolako eta basoko tradizioei traizio egiten dielako, basoko eta bertako jendearekiko loturak galtzen ditu.

Saiak izena du albumak, putreak; azken finean, Iratik eta Enekok borrokatu beharko dutelako oiha-naren inguruan dagoen jendearekin. «Jende horrek ez dauka gupidarik, handizaleak dira, putreak», dio Muñozek. Beraz, Irati eta Ene-

ko, bakoitza bere aldetik, horien kontra borrokatzen dira.

Irati buruzko lehenengo albuma Landak asmatu, idatzi eta osatu zuen, 1995ean. Orduan aurkeztu zituen Irati eta Eneko. Album hura historiarekin oso lotua zegoen. Aurrerago, Landak eta Muñozek elkarrekin beste bi album egin zituzten Iratiren inguruan. «1997an atera genuen lehenengoa elkarrekin. Nik historia- ren alorretik atera eta kondairaren eta mitoen alorrera eramane nahi izan nuen. Historia- tik abiatu eta amets egiteko oso formatu ederra izan zitekeela uste bainuen». Azkenean, bi album egin zituzten elkarrekin.

«**BIKOTE ZORAGARRIA**». Dani Fano, *Xabiroi*-ko koordinatzaileak, komikiaren erronka eskaini ziotenean Juan Luis Landarengan pentsatu zuela azaldu du. Orduan, erabaki zuten *El ciclo de Irati*-ko pertsonaia berberekin istorio berri bat asmatzea. «Eta berriz jarri genuen martxan bikote zoragarri hau», dio Fano. «Oso lan txukuna egin dute. Eta aurrerago honelako lan gehiago ateratzen saiatuko gara». Horretaz gain, *Xabiroi* komiki aldizkariak hamargarren ale berezia kaleratu du.

Koldo Tellitu/Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko presidentearen arabera, helburua gazteek euskarazko komikiak izatea da. Bide batez euskararen erabilera bultzatu nahi dutela adierazi du.



Jon Arretxe *Morto vivace* nobela beltz klasikoaren aurkezpenean, Donostian. JUAN CARLOS RUÍZ / ARCAZKI PRESS

Eta zein da hiltzailea?

Hainbat genero landu ondoren, 'Morto vivace' nobela beltz klasiko argitaratu du Jon Arretxe

ARANTZAZU MUÑOZA
Donostia

Perrot eta Martinez inspektoreek Parisen gertatutako heriotza bat argitzeko egindako ikerketa kontatu du Jon Arretxe *Morto vivace* polizia nobela argitaratu berrian (Elkar). «Aspalditik neukan nobela beltz poliziako klasiko bat idazteko gogo», azaldu du idazleak liburuaren aurkezpenean.

Uztailak 14, festa nazionala Parisen. Miarrizko opera korukoak Parisera joan dira asteburu-pasa. Sena ibaiko *bateau-mouche* batean daude afaltzen. Zeruian lehertzen diren su artifizialei begira dauden bitartean, koruko kide baten gorpu-a agertu da ur gainean. Martinez eta Perrot inspektoreei tokatu zaie heriotza argitzea. Magrebtarra da bata; beltza bestea; eta Pigalle auzoko giroa gustuko duten polizia gogorrak biak. Lanean hasi bezain laster, ordea, katramilatu egingo zaie ikerketa.

Parisko bi ingurune elkarren aurka jarri ditu Arretxe *Morto vivace*-n eta bien arteko kontrastea azaltzen ahalegindu da. Alde batean, Sena ibaiaren inguruko auzo dotoreak eta *glamour*-a jarri ditu; beste aldean, beriz, baztertutako eta etorkinez betetako auzoak: Pigalle, horietan nagusi. Nobela beltzetan ohiko osagarria den kritika soziala egiteko baliatu du kontraste hori: «Kritika sozialetik badu. Parisko auzoen artean dagoen alde handi hori erakutsi eta islatu nahi izan dut».

Nobelako pertsonaia nagusiak, Perrot eta Martinez, Pigallekoak

dira. Parisen prostituziogehien dagoen lekua da hura, etorkin gehien bizi dena. Auzo baztertuta da, eta auzokideak ez daude hirian integratuta.

Tramazalea dela argitu du Arretxe, beti miretsi izan dituela ondo kontatutako nobelak: «Tramaren inguruko guztia ondo eginda egotea inportantea da, eta nik horri eman izan diot beti garrantzia gehien. Gertatzen den istoriotxo horrek kateatu, harapatu egin behar du irakurlea». *Morto vivace*-n ere Martinez eta Perrot inspektoreek hilketa argitzeko egiten duten ikerketa da eleberraren osagai nagusietako bat, baina oraingoan, nahiz eta inportanteena trama izan, beste atal batzuei ere ohi baino garrantzi handiagoa eman diela aitortu du Arretxe: «Giroa lanari, agian, beste batzuetan baino inportantzia handiagoa eman diot». Hala, irakurleari igorri nahi dion giro hori ondo jasotzeko, Pigalleko ostaru batean zenbait egun igaro zituen bere eskuko ordenagailuarekin idazten.

Idazteko orduan logistika arazo batzuk izan ditu Arretxe, eta dokumentazio lan handia egin behar izan du. Alorrean alorreko adituei ere eskatu die laguntza: «Nobela ez dut Euskal Herrian kokatu, Parisen baizik. Jakin behar izan dut hain nola funtzionatzen duen administrazio munduak, norbait hilez gero nola errotan duten, eta abar». Nobelan kaleak xehetasun handiz ematen dira. Horretarako, Arretxe bera kalez kale ibili zen, «batez ere, hanka ez sartzeko». Euskal Herri-

ko zenbait erizainengana ere jo zuen, autopsiaren gaineko informazioa eskuratzeko.

GENERO BATETIK BESTERA. «Nik gozatu egiten du generoak aldatuz», aitortu du Arretxe. Bidaia literatura eginez hasi zen. Bizi izandakoaren kronikak egiten zituen batetik; horren emaitza dira, esaterako, *Tubabab* edota *Tuparen seme-alabak*. Afrikako Mediterraneoan egindako bizikleta bidaia kontatu zuen lehenen; bigarrenean, berri, Brasilen egindakoa. Bidaietan oinarritutako fikzioaz literatura ere egin izan du. Horren adibide dira, *Hakuna Matata* ipuin liburua eta *Oroituz* budismoaz gogoeta egiten duen narrazioa.

Arretxeren beste alor ezagunetako bat umorezko lanena da. Gazteen bizimoduari oinarritzen ziren *Ostegunak*, *Ostiralak* eta *Larunbat* eleberrak ezagunak dira; izan ere, sekulako arrakasta lotu zuten. Umorearekin jarraitu zuen gerora ere: umorezko polizia nobelekin. «Nobela ganberro samarrak» egin zituen Artabe eta Etxabe detektibeekin. Arretxeren azken lana bel- durrezko nobela izan zen, eta orain eleberriz beltz klasikoak idatzi du.

«Orain, ikusi behar da irakurle- ek zelan hartzen duten nobela berria, jendeak gustuko duen edozein, adierazi du. Dena den, hasitako bidetik jarraitzeko asmoa dauka, nobela beltzaren bidetik. Baina beste hiri batzuetan kokatu ditu istorioak: «Bidaia nobela beltza dei le- kioke, akaso».

Liburuaren editore Xabier Mendiguren Elizegiren esanetan, ordea, edozein espero liteke Arretxe- rengandik: «Beti sorpresak ematen dizkigu». Idazten duena idaz- ten duen artean ere «argi, zehatz eta arin» egiten du, eta ez dauka «uler- tu ahal izateko bi aldiz irakurri be- harreko esaldirik».

Bertso saioa

Bertso saioa

Bertso saioa

Bizkaiko bertso agenda:

ostirala 30

- GORDEXOLA**, Bertso-afaria Jubilatutako goiztea, 22:00 Oihana Bartra, Fresh Paisa
- BARRIKA**, Librea Goleiri auzoa, 12:00 X. Amuriza, J. Lopezlegi

larunbata 1

- ERANDIO**, Bertso tranpak Merkatu zaharra, 13:00
- MUNGIA**, Bertso tranpak Agirre Jauregia, 22:00
- IGORRE**, Gu ta Gutarrak Kultur Etxea, 21:00

igandea 2

- DERIO**, Bertso Jaialdia Gurea Aretoa, 19:00 J. Maiz, S. Colla, X. Poya, A. Mendikute
- ZALLA**, Gu ta Gutarrak Zine Antzokia, 19:00
- BERRIZ**, Berriketa Pedro Juan Jatebia, 14:30

«Kritika sozialetik badu. Parisko auzoen artean dagoen alde handi hori erakutsi nahi izan dut»

JON ARRETXE
IDAZLEA